

Ametsak

Rama hamahiru urteko mutila zen. Indiako Ozeanoko Sri Lanka irlan, Indiatik hegoaldera, bizi zen gurasoekin, mendialdeko etola apal batean. Oso txiroak ziren. Aitak egun osoa basoan egurra batzen ematen zuen. Amak jauntxo baten arroz soroetan egiten zuen lan eta Ramak herriko gizon aberats baten ardiak zaintzen zituen. Hiruren artean ozta-ozta irabazten zuten bizimodua aurrera ateratzeko behar hainbeste.



Familia hain behartsua izanik, Ramak denbora gehiena lanean pasatu behar izaten zuen eta oso gutxitan agertzen zen herriko eskolan.

Gainera, azaltzen zenean, askotan ez zituen asmatzen irakaslearen galderak:

- Ea, Rama, zein da Indiako hiriburua? – galdetu zion behin irakasleak.
- Zera... Pekin? –erantzun zuen mutilak.
- Pekin? Pekin? Pekin Txinan dago! Indiako hiriburua Delhi da! Eskolara sarriago etorriko bazina, ongi jakingo zenuke hori!

Ramarentzat leku haiek guztiak (Txina, India, Pekin, Delhi...) berdinak ziren. Noiz edo noiz entzunda zeuzkan, baina ez zuen idelarik ere non zeuden. Eta berdintsu gertatzen zitzaion beste hainbat gauzarekin.

Rama triste eta lotsatua sentitzen zen. Baina nola atera egoera hartatik?

Ramak sarritan izaten zituen hori buruzko ametsak, batzuetan esna eta beste batzuetan lo.

Gau batean, mutikoak amets berezi bat izan zuen. Agure bat ikusi zuen aurrez aurre. Bizar zurikoa zen, durbantea zeukan buru bueltan eta lanbro artean ageri zen. Honela hitz egin zion:



- Rama, mutil zintzo eta langilea zara eta lagundu egin nahi dizut. Zure ezjakintasun eta pobreziatik atera nahi duzu? Horrela bada, zure herrixkaren ondoko mendi puntara igo. Harritzko ate bat aurkituko duzu bertan. Ireki atea eta sartu. Han barruan maitagarri asko bizi dira. Eskatuz gero, zure helburua betetzen lagunduko dizute.

Hurrengo goizean gurasoak, egunero bezala, lanera joan ziren. Ramak ardiak zaindu behar zituen, baina artaldea bakarrik utzita, mendi tontorrerantz abiatu zen. Janariz betetako poltsa bat zeraman.

Ordu batzuk behar izan zituen goraino heltzeko. Ordurako arratsaldea zen. Harritzko atea aurkitu eta sartu egin zen. Koba handi baten barruan zegoen eta

maitagarri eder asko ikusi zuen bertan. Hauek ez zeukaten janaririk eta Ramak poltsan zeraman guztia eman zien. Atseginez jan zuten dena eta gero, esker onez, zera galdetu zioten:

- Zertan lagundu ahal dizugu, mutiko?
- Txiroa eta kultura gabekoa naiz. Egoera hori guztiz aldatzea nahi nuke baina ez dakit zer egin dezakedan horretarako.
- Ederki. Iparralderantz joan behar duzu. Txina deritzon herrialde zabal-zabal batean sartu eta, han zaudela, Harresi Handia bilatu. Harresi horretan altxor bat aurkituko duzu, jakintsu eta aberats bihurtuko zaituen altxor bikaina, hain zuzen.

- Eta harresi horretara helduta ere, non bilatu beharko dut altxorra?
- Gaur gauean amets bat izango duzu eta bertan puntu zehatz hori agertuko zaizu begi aurrean. Ongi gogoratu hara heltzen zarenerako.

Rama kobazulotik atera zen, pixka bat nahastuta, baina pozik aldi berean. Korrika jaitsi zen etxeraino, osotara ilundu aurretik ailegatzeko.


Eta gau hartan bertan, maitagarriek esan bezala, amets harrigarria izan zuen:

bera ardiak zaintzen zegoela arrano beltz izugarri handia hurbildu zitzaion hegaz eta garrasika. Arranoa lurreratu eta makurtu egin zen bere aurrean, bizkarraidea eskainiz. Rama gainean jarri zen, lepoko lumetatik heldu zion eta arranoa hegaz igo zen zerurantz.

Bidaia bizkor eta zoragarria egin zuten denbora laburrean eta azkenean kilometro askotan luzatzen zen ferro moduko bat ikusi zuten. "Horrek izan behar du Harresi Handia", pentsatu zuen Ramak, haren egitura ikustean.

Garrasi eginez jo zuen beherantz hegaztiak. Rama beldurtu egin zen, bizkorregi zihoazen eta bertan burua apurtu behar zuela iruditu zitzaion. Zeharo izututa, begiak itxi zituen eta ...

Eta esnatu egin zen bat-batean. Etxolako ohean zegoen, izerditan...



Jon Arretxeren "Harresi Handirantz" liburutik egokitua

1. Zein da Ramaren aitaren lanbidea?

- A. Artzaina
- B. Behartsua
- C. Egurgilea
- D. Arroz biltzailea

2. Zer esan nahi du "hiruren artean ozta-ozta irabazten zuten bizimodua aurrera ateratzeko behar hainbeste" esamoldeak?

- A. Aita, ama eta Ramaren artean diru asko irabazten zutela.
- B. Aita, ama eta Ramaren artean justu-justu bizitzeko dirua irabazten zutela.
- C. Aita eta amaren artean justu-justu bizitzeko dirua irabazten zutela.
- D. Aita, ama eta Ramaren artean ez zutela bizitzeko dirurik irabazten.

3. Ramak askotan ez zituen asmatzen irakasleak egindako galderak. Zergatik?

- A. Herriko eskolara oso gutxitan agertzen zelako.
- B. Bere familia behartsua zelako.
- C. Ikasketetan zailtasunak izaten zituelako.
- D. Herriko gizon aberats baten ardiak zaintzen zituelako.

4. Non uste zuen Ramak zegoela Pekin?

- A. Txinan
- B. Ez zekien
- C. Indian
- D. Txinako Harresian

5. Nolakoa zen Ramari ametsetan agertu zitzaion agurea?

- A. Bizar beltzekoa, durbantea buruan eta lanbro artean agertzen zen.
- B. Bizar zurikoa, durbantea lepoan eta lanbro artean agertzen zen.
- C. Bizar zurikoa, durbantea buruan eta leihoan agertzen zen.
- D. Bizar zurikoa, durbantea buruan eta lanbro artean agertzen zen.

6. Zergatik zeraman durbantea buruan ametsetan agertu zitzaion agureak?

- A. Ametsetan agertzen diren pertsonaiek beti eramaten dutelako.
- B. Istorioa ongi ulertzeko jantzi hori oso garrantzitsua delako.
- C. Istorioa gertatzen den herrialdeko ohitura delako.
- D. Agureak mozorroturik agertu nahi zuelako.

7. Zergatik utzi zuen mutikoak artaldea bakarrik?

8. Ramak arranoari lepoko lumetatik heldu zion...

- A. seguruago sentitu eta ez erortzeko.
- B. arranoari nondik joan behar zuen esateko.
- C. arranoak berak eskatu ziolako.
- D. kobazuloko maitagarriek esan ziotelako.

9. Zergatik agertzen da testuan “Horrek izan behar du Harresi Handia” kakotxen artean?

- A. Testuko momenturik garrantzitsuena dela adierazteko.
- B. Ramak pentsatutako hitzak direla nabarmentzeko.
- C. Amets bat denez, benetan gertatu ez den ekintza dela azaltzeko.
- D. Istorioa bukatzeko gutxi falta dela abisatzeko.

10. Zein izan daiteke testu honen beste izenburu bat?

- A. Ramaren amets zoragarria
- B. Ramaren aita eta ama
- C. Arrano beltzaren ibilaldia
- D. Agure bizarzuriaren aholkuak

11. Ordena itzazu pasarte hauek kronologikoki (1etik 4ra zenbatuz).

☐

Rama, artaldea bakarrik utzita mendi tontorrerantz abiatu zen.

☐ Gau batean, mutikoak amets berezi bat izan zuen, agure bat ikusi zuen aurrez aurre.

☐ Arrano beltzarekin bidaia zoragarria egin zuen.

☐ Rama kobazulotik atera zen eta korrika jaitsi zen etxeraino.

12. Zein izan daiteke testu honen laburpena?

A. Rama mutil behartsua da, eskolara gutxitan joaten da eta ikasleek irri egiten diote.

B. Rama mutil behartsua da, ametsetan agure bizar zuria ezagutzen du.

C. Rama mutil behartsua da, eta ametsetan arrano beltz baten gainean hegan egiten du.

D. Rama mutil behartsua da, eta pobreziatik eta ezjakintasunetik ateratzen lagunduko dion amets zoragarria egiten du.

13. Zure ustez, zein da testuaren egilearen helburua?

A. Sri Lanka irla non dagoen ezagutaraztea.

B. Istorio honen bitartez irakurtzeaz gozatzea.

C. Ametsei eta errealtateari buruzko iritzia ematea.

D. Arranoaren ezaugarri fisikoei buruzko informazioa ematea.

14. Zure ustez, Ramak konbentzitu izanen zituen bere gurasoak Txinako Harresirantz alde egiten uzteko? Zergatik?
